



GUREL Leintz Gatzagako Guraso Elkarteak, **KOLDOTXO** Luis Ezeiza Herri Eskolako Guraso Elkarteak eta **Leintz Gatzagako udal taldeak**, ondorengo mozioa aurkezten dugu Eskoriatzako udaleko osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

Gatzagako guraso elkarte eta udalak maiatzean jakin izan genuen, Gatzagako herriak duen gela desplazatua itxia izango zela datorren ikasturterako, eta ondorioz, 15 urte ondoren, bere momentuan herri ekimenaren bidez irekitzea lortu zen 2-5 urteko gelaren ibilbideari amaiera emango zitzaiola.

Gatzagako herriak, Gatzagako herritarrek, 70.hamarkadako egoerari buelta emateko helburuarekin auzolanean, elkarlanean hasi ziren Gatzaga herri bizia izan eta etorkizuna izateko. Herritarren ekimenari esker eta urteetako lanaren ondorioz, hainbat proiektu bultzatzea, sortzea eta egonkortzea lortu zen. Ondorioz, Gatzagan herritarrek bizitzeko toki aproposa bilakatuz, baita herriko txikitxoentzat ere.

Gatzagak, Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolako gela desplazatua dauka herrian. Udala arduratu izan da, gelaren inbertsio, mantenu eta bitarteko materialez, eta irakaslea Luis Ezeiza ikastetxekoa da. 2015 ikasturtean, Gatzagako udala eta guraso elkarteak, Hezkuntza Sailarekin harremanetan aritu ziren Lehen Hezkuntza ezartzeko herrian; baina arrakasta gabe. Harreman eta kudeaketa horien ondorioa eta lorpena izan zen, Hezkuntza Sailaren aldetik jasotako konpromisoa, alegia 2-5 urteko gela irekia mantenduko zutela eta ez zutela itxiko. Baina hitzak haizeak eraman ditu eta 2016 – 2017 ikasturtera begira, Hezkuntza Saila kontrako erabakiarekin etorri da, inolako azalpen ofizialik gabe. Omen, Luis Ezeizan matrikulazioa jaitsi dela.

Horregatik guztiarengatik, ondorengo adierazpena egiten du Eskoriatzako udalak:

- 1.- Eskoriatzako udalak bere babesa ematen die Gatzagako herriari eta Gatzako guraso elkarteari.
- 2.- Eskoriatzako udalak Hezkuntza Sailari eskatzen dio mantentzeko Gatzagako gela desplazatua irekita. Izan ere, herri txikietako bizitza eta biziraupenerako haurrak bertan ahalik eta bizitza gehien egiteak duen garrantzia funtsezkoa baita.
- 3.- Eskoriatzako udalak bat egiten du Gatzagako herriak sustatzen dituen auzolan eta balore kolektiboekin eta horiek, gure bailaran zabaltzeko, herrien arteko elkarlan eta hartu emana sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- 4.- Eskoriatzako udalak adierazpen hau Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera eta Legebiltzarrerara igorriko du, dagozkien agintariak jakinaren gainean egoteko.